



• DEABRUAREN ABOKATUA •

“Idazle izatea ofizio xixtrin eta apala baizik ez da”

Eider Rodriguez | Editore ohia

Hankaz gora dago mundua. Bakoitza bere autoan bizi da, Txinako aireportuetan Errealeko elastikoak saltzen dituzte, eta *Haragia* liburu-dendan erosten da.

SUSTRAI COLINA

Argazkia: Gaizka Iroz

Eider Rodriguez delako batek dixit: “Liburugin-tza sektorea oso-oso ustela da”.

Sormen lan bat produktu bilakatzen denean usteldu egiten da. Hor ez dago ez edertasunik, ez mundua aldatzeko nahirik, hor dirua irabaz-teko grina dago. Horregatik diot literaturaren arerio handiena liburugin-tza bera dela.

Nik uste nuen literaturaren etsai handiena libu-ru-aurkezpenetan kaka esplikatzeko dagoen joera patologikoa zela!

Ez baduzu aurkezpenik egiten liburu hori ez da ateratzen, apenas daukan oihartzunik. Etxe-kalte jokatzeko litzateke, eta gauzak dau-den bezala, ezin dugu pribilegio hori hartu.

Gizajoak, zuek, piztia mediatikoak bihurtzera kondenatuta zaudeten literaturaren seme-ala-bak.

Azken finean, dena da produktu, dena merka-tu, dena dago erosgai, eta gu ere bai. Pertsona mediatikoa izatea plus bat da saltzeko, ezagu-nagoa izateko, karrera egiteko, baina idazteko ez.

Baina, neska, idazteak ez du dirurik ematen!

Liburu bat idaztearen ordaina erridikulua da. Idatzi ahal izateko sekulako malabarismoak egin behar dira. Lotsagatik ez dugu sekula diruari buruz hitz egiten. Nahiago dugu ara-zoa irentsi zezenari adarretatik heltzea baino.

Jakina, errazagoa da balizko lehen nobelari buruz espekulatzea...

Film laburra egiten duenari beti galdetzen zaio noiz kaleratuko duen film luzea, baina ehun metroak korritzen dituenari maratonia noiz egingo duen galdetzen zaio?

Idazle bat izerditan ikusten dugunean, agian...

Idazle izatea gauza eder, handi eta arranditsu-tzat dugu, baina ofizio xixtrin eta apala baizik ez da.

Primeran gelditu zaizu.

Idazle izatea iragazkia izatea da, mundua eta zure artean dagoen iragazkia zure testu bat izatea.

Ez esan iragazki izateko idazten duzunik.

Ez dakit zergatik idazten dudan. Ez dut inon-go plazerik hartzen, ez zait gustatzen liburua plazaratzean sortzen den oihartzuna, ez naiz gustura sentitzen irakurlearekin hizketan, nahiago dut irakurri idatzi baino, eta hala ere...

Lasai, masokismoa modan dago.

Estetikarako joera bat da. Bakoitzak edertasu-na edo itsustasuna bilatzeko daukan modu bat. Ez dakit apalagoa edo goragokoa, baina idazketak beste dimentsio bat ematen dio norbere bizitzari.

Idazketak beste dimentsio bat eman? Horre-tarako kritikak daude!

Begi batekin eta zeharka irakurtzen ditut... jajajaja. ■